

**SUKARRIETA
ESKOLA
SAIAKUNTZARAKO
ZENTROA**

KOADERZAKETA

SESZ

Sukarrieta Eskola Saiakuntza Zentroko (SESZ) talde pedagogikoak txosten hau garatu du egonaldian zehar tailer hau garatuko duten irakasleentzat, baita ere tailer honen inguruan interesa duen edonorentzat.

Ikastetxe desberdinetako ikasleek zein irakasleek ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeaz gain hainbat tailer egiten dituzte astebeteko egonaldian. Tailer bakoitza bi orduko hiru saiotan dago antolaturik, lasaitasunez garatzeko moduan.

SESZeko lan pedagogikoan ikuspegi eraikitzailea eta ebaluazioa dira oinarriak eta garrantzia handia hartzen dute, besteak beste, talde-lanak, berdinen arteko ikasketak, aniztasunaren trataerak eta irakasleak ikasleekiko duen jarrera hurbilak.

Ildo berean jarraituz, tailerraren garapenarekin irakasleek esku-hartze pedagogikoa aberasteko aukera dute.

Alde batetik, tailerretan ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzen dira errealitate eta kultura anitz bilduz eta horrek aniztasunaren trataeran sakontzea ahalbideratzen du. Bestetik, talde lanean aritzen dira esku lan bat eginez, eta aukera paregabea zabaltzen da berdinen arteko ikasketa bultzatu eta ikasketa esanguratsua garatzeko.

Aurkibidea

1~ SARRERA	3
2~ HELBURUAK	4
3~ PLANGINTZA	5
3.1 PLANGINTZA SAIOZ SAIO	6
1.SAIOA	6
2.SAIOA	11
3.SAIOA	14
4~ NON LORTU MATERIALAK	15
5~ ERANSKINAK	15
1. ERANSKINA "Asmoen orria"	19
2. ERANSKINA "Arduradunen orria"	215


1~ SARRERA

Koadernaketa munduko ofiziorik zaharrenetakoa da. Jatorrian arte bat bezala hartu bazen ere, gaur egun ofizio edo zaletasun huts gisa hartzen da.

Koadernaketari buruzko lehen erreferentziak Grezian aurki daitezke kristau aroa baino hainbat mende aurretik.

Grabatuak edo idatzitako dokumentuak oso estimazio handikoak eta oso garrantzitsuak ziren garai hartan, horregatik, grekoek azal-bilgarri edo bildukin batzuk sortu zituzten papirozko edo pergaminozko biribilkiak estaltzeko.

Egiptoarrei, bestalde, dokumentu horiek elkartu eta koadernatzeko beste modu bat bururatu zitzairen. Ohiko biribilkiaren ordeztu, orriak erditik tolestu, guztiak tamaina berekoak izan zitezten muturrak moztu eta azkenik elkar-josi zituzten. Honek "códex"-izena jaso zuen eta liburuaren aurrekaria izan zen.



XVIII. mendeko Frantziako koadernaketa tailer bat.

2~ HELBURUAK

TAILERREN HELBURU OROKORRAK

- Talde jardueretan aktiboki parte hartzea, norberari dagozkion ardurak erantzukizunez hartuz, norbere eta besteen ekarpenak balioetsiz eta besteeiko harreman orekatu eta eraikitzaileak sortuz, lankidetzan, errespetuan eta elkertasunean oinarritutako bizikidetzara eraikitzeko.
- Norbere elaborazio artistikoetan konfidantza garatzea, egitearekin gozatuz eta norbere garapen pertsonalari zein taldekoari egiten dizkion ekarpenak baloratzuz, norbere autoestima sendotzeko eta ideia zein sentimenduen adierazpen gaitasuna hobetzeko.
- Ondasun kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzea eta balioestea, espresiorako baliabideak modu estetiko eta sortzaile batean pertsonalizatuz, artea eta kultura ideia, sentimendu eta esperientzien adierazpen gisa ulertzeko eta baloratzeko eta ondarearen kontserbazioan eta berrikuntzan parte hartzeko.



KOADERNAKETA TAILERRAREN HELBURUAK

- Papergintzako lan ezberdinak diseinatzea eta gauzatzea, tindaketa koloreak eta paperen konbinazioak aukeratuz eta irudimena erabiliz, sormena garatzeko eta gozatzeko.
- Elkar lanean aritzea, papergintzako manipulazioan ideiak konpartituz, bata besteari lagunduz eta prozesua baloratzuz, lan kooperatiboa norbere emaitzak lortzeko ezinbestekotzat sentitzeko.
- Koadernaketako emaitzen eta tekniken erabilgarritasuna baloratzeko eta beraiei kabuz ekoiztu dezaketela konturatzeko, lan ezberdinak sortuz eta aurretiaz dituzten materialak berrerabiltzera animatuz, norberak eginikoa balioesteko eta kontsumo jasangarri bat sustatzeko.

3~ PLANGINTZA

Egin beharreko lanak azaltzerakoan, aurretiaz eginda dauden lanak lagungarriak izango dira eredutzat erabiltzeko.

Beharrezkoa den material guztia neurturik eta prestaturik dago tailerreko armairuetan.

Koadernaketa tailerra aurrera eramateko planteatzen den plangintza honako hau da:

1.SAIOA


- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Taldearen aurkezpena
- 3- Asmoak
- 4- Arduradunen izendapena
- 5- Estalpe orrien tindaketa eta Lan osagarriak: orriartekoa eta egutegi-ordutegia
- 6- Tailerraren bilketa
- 7- Balorazioa

2.SAIOA

- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Koadernoak
- 3- Poltsen apainketa
- 4- Tailerraren bilketa
- 5- Balorazioa

3.SAIOA

- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Karpeta
- 3- Poltsen prestaketa
- 4- Tailerraren bilketa
- 5- Tailerraren balorazioa



3.1 PLANGINTZA SAIOZ

1.SAIOA

Lagunartean gustura egon eta zerbait eginez une atseginak bizi nahi dira. Horregatik, saio honetako lehenengo momentuak garrantzitsuak dira hasieratik giro atsegina sortzeko eta kideen arteko harremanak finkatzen hasteko. Tailerra gauzatzeko taldekideen asmoak kontuan hartuz, taldekatze orekatuak egitea eta arduren banaketa egitea ezinbestekoak izango dira.

Saio hau bi taldetan burutuko da. Taldeko 2 partaide, txandaka, koloreen konbinazioak aukeratuz eta irudimena erabiliz, hurrengo saioetan erabiliko diren estalpe orrien tindaketa eta diseinua egingo ditu. Bitartean gainontzeko guztiak giro lasai batean orri-arteko eta egutegi bana egingo dute, diseinu librearekin sormena garatzea eta elaborazio propioaz gozatzea izanik helburuak.

Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioa aurrera eramateko plangintza:


Momentuak:		Materiala:		
30 min	1) Gelaren antolaketa	Asmoen orria Arduradunen orria		
	2) Taldearen aurkezpena			
70 min	3) Asmoak	<u>Estalpe orrien tindaketa</u> - Hiru kubeta - Amantalak - Eskularruak 2 DIN-A3 1 DIN-A4 - Tinturak - Orraziak - Arkatzak	<u>Orriartekoa</u> - Barradun kola - Kartulina zatiak - Tindatutako paper zatiak - Artaziak - Aironfix - Errotulkiak	<u>Egutegi ordutegia</u> - Barradun kola - Kartulina zatiak - Tindaturiko paper zatiak - Ordutegi-egutegi koadroen fotokopiak - Artaziak
	4) Arduradunen izendapena			
10 min	5) Estalpe orrien tindaketa eta lan osagarriak: - orriartekoa - egutegi / ordutegia			
	6) Tailerraren bilketa			
10 min	7) Balorazioa			

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Saio honetan koadernaketako tailer-gela erabiliko da, tailerra hasi baino lehen, gela antolatuta izatea garrantzitsua eta komenigarria da; ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartuko dute.

Alde batetik, tailer-gelan mahaiak elkarren segidan jarriko dira, bere inguruan aulkiak ipiniz.

Bestetik, tailer-gelako arraskaren aldamenean 2 mahai ipiniko dira tindaketa txoko moduan. Mahaiak paperez estalita eta lurra plastikoz estalita utziko dira zikindu ez daitezen. Prest utziko dira baita ere erdiraino urez betetako hiru kubeta (2 handi eta txiki bat) eta beraien ondoan tintura poteak eta orraziak egongo dira. Gainera, ikasleek jantziko dituzten eskularruak, amantalak eta tindatzeko erabiliko dituzten orriak zein arkatzak ere eskuragarri jarri behar dira.



2.- TALDEAREN AURKEZPENA:

Tailer-gelan elkartuko dira denak, mahai inguruan jesarrita. Kontuan izan behar da taldean elkartu diren ikasleak ikastetxe desberdinetakoak direla eta oraindik ez direla elkar ezagutzen. Tailerreko momentuak partekatu eta elkarlanean arituko direnez, irakasle zein ikasle bakoitzaren aurkezpena egingo da elkar ezagutzen hasteko (nor den, zein ikastetxetako den, zein proiektutan dagoen...).

Bestalde, ikasleek dakarten motibazio maila neurtzeko, tailerra beraiek aukeratutakoa den edo gustukoa duten ala ez galdetuko zaie. Honek taldean sor daitekeen giroa aurreikusten lagunduko du.


3.- ASMOAK:

Ikasleek dituzten nahiak, interesak, helburuak... jakitea lagungarri izango da irakasleonek esku-hartzea egokitzeko. Esandakoak jasotzeko, euskarri gisa, "Asmoen orria" (I Eranskina) erabiliko da.

Irakasle eta ikasleek tailer honetako asmoak elkarrekin adostuko dituzte. Horretarako honako galderak erabili ahal dira: *Zein asmo duzue tailer honetarako? Zeintzuk dira tailer honetarako dituzuen nahiak? Zer egitea espero duzue tailer honetan?...*

Asmoen tresna honekin ikasleen hainbat itxaropen eta nahi agertuko dira, baina tailerren helburuak bermatzeko interesgarria da asmo hauek ziurtatzea; *lagunak egitea, ondo pasatzea, tailerrari buruz ikastea, etb.*


Asmoen orria tailerra martxan dagoenean erregulatzeko eta azken eguneko balorazioa egiteko tresna izango da.



4.- ARDURADUNEN IZENDAPENA:

Tailerraren garapena era antolatu, lasai eta ordenatuan egiteko, arduradunak izendatuko dira.

Horretarako euskarri gisa, "arduradunen orria" (II Eranskina) erabiliko da. Hiru arduradun-talde egingo dira, saio bakoitzeko talde bat. Talde horren ardura izango da beharrezko osagai eta tresna guztiak armairutik mahaira ateratzen laguntzea eta saioa bukatutakoan dena gorde eta txukun uztea.



5.- PAPER TINDAKETA ETA LAN OSAGARRIAK (ORRIARTEKOA ETA EGUTEGI-ORDUTEGIA)

Lehen saio honetan tindaketak eta lan osagarriak une berean egingo dira talde handian. Binaka tindaketak egiten ari diren bitartean besteak lan osagarriak (orriartekoa eta egutegi-ordutegia) egiten egongo dira ikasle guztiek dena eginez.

Taldeari aurretiaz ereduizko lan osagarriak aurkeztuko zaizkie. Ondoren, irakasleak tindaketa prozesua nolakoa izango den erakutsiko du. Lanak aurrera eramateko behar diren materialak eskura ipiniko dira ikasle bakoitzak era autonomoan la egin dezan.

ORRIARTEKOA:

MATERIALA:

- Barradun kola
- Kartulina zatiak
- Tindatutako paper zatiak
- Artaziak
- Aironfix
- Errotulkiak

PROZEDURA:

Eredutzat dauden adibideak erakutsiz, bakoitzak kartulina tira bat aukeratuko du eta orriartekoak izango duen forma emango dio.

Ondoren, tindaturiko paper zatiak eta eskainitako gainontzeko materiala (errotulkiak, artaziak...) hartuz, norberak bere diseinua burutuko du eta plastifikatu egingo du.

EGUTEGI-ORDUTEGIA:

MATERIALA:

- Barradun kola
- Kartulina zatiak
- Tindaturiko paper zatiak
- Ordutegi-egutegi koadroen fotokopiak
- Artaziak

PROZEDURA:

Eredutzat dauden adibideak erakutsiz, bakoitzak kartulina zati bat hartu eta erdi-erditik tolestuko du.

Barrualdean egutegiaren eta ordutegiaren txantiloia itsatsiko dute. Kanpoaldean konposizioak egin ditzakete tindaturiko paper zatitxoekin.

PAPER TINDAKETA:

MATERIALA:

- Hiru Kubeta
- Amantalak
- Eskularruak
- 2 DIN-A3
(Ikasle bakoitzeko)
- 1 DIN-A4
(Ikasle bakoitzeko)
- Tinturak
- Orraziak
- Arkatzak

PROZEDURA:

1. Ikasle bakoitzak erabiliko dituen orrien atzealdean bere izena jarriko du eta amantala eta eskularruak jantziko ditu.
2. Binaka txandakatuz egingo dituzte tindaketak. Komenigarria da irakasleak egingo denaren erakustaldi bat egitea lehenengo.
3. Ikasle bakoitzak bere gustuko 2 edo 3 koloreen tanta batzuk botako ditu kubetara, orraziaz nahasi -nahi izan ezker, beti norantza berdinean eta hondoa ukitu barik- eta papera tindatzera sartuko du arreta eta kontu handiz: lehendabizi, papera "U" forman tolestu, erdiko zatia pausatu, ondoren mutur bat pausatu eta ondoren beste muturra jausten utziko du, tartean aire burbularik sortzen utzi gabe. Burbuilak sortzekotan, hauek kontu handiz zapaldu airea ateratzeko.
4. Lortuko den marrazkia momentuan sortzen da eta, aldatzen ez denez, papera beldurrik gabe altxatu daiteke.
5. Tindatutako paperak kubetatik ateratzean, tantak kubetan erortzen utzi eta apaletan utziko dituzte lehertzeko eta hurrengo egunean erabili ahal izateko. Lurrera tantaren bat eroriz gero lehen bait lehen garbitu.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

1. Ikasleei prestatzen ari diren paperak zertarako diren azalduko zaie.
2. Koloreen kantidadea: tanta bakar batzuk nahikoak dira.
3. Koloreak ondo nahasi daitezen botatzeko ordena: *urdin-gorri-hori.*
4. Koloreen nahasketak: kolore bat, bi edo hiru erabiltzeaz gain, ea orban handiak ala nahasian (orraziarekin) egitea aukeran emango zaie eta ondoren dagozkion azalpenak eman.

6.- TAILERRAREN BILKETA:


Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea. Tailer-gelan erabilitako tresna guztiak garbituta eta bere lekuan utziko dira.

Tindaketarako erabili den materiala garbitzeko hurrengo pausoak jarraituko dira:

1. Kubetan dagoen margoa periodiko-paperez garbitu.
2. Kubetetako ura arraskatik bota.
3. Gainontzeko guztia garbitu.

7.- EGUNEKO BALORAZIOA:

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua da. Saioaren balorazioa beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko erabilgarria izango da eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.



2.SAIOA


Koadernaketako produktuak beraien kabuz erraz diseinatu eta ekoizteko gai direla konturatzeko aurreko saioan tindatutako paperekin koaderno bana egingo dute saio honetan.

Koadernaketako tekniken eta papergintzako baliabideen erabilgarritasuna baloratu nahi da lan ezberdinak sortzean aurretiaz dituzten materialak berrerabiltzera animatuz, norberak eginikoa balioesteko eta kontsumo jasangarri bat sustatzeko.

	Atalak:	Materiala:
10 min	1) Gelaren antolaketa	
80 min	2) Koaderno	○ Artaziak ○ Barradun kola ○ Erregela ○ Zulagailuak ○ 10 folio erdi ○ 2 kartoi lodi txiki ○ Tindatutako A4 papera ○ Telazko zinta itsaskorra (esparadrapoa) ○ Barrualderako kartulina beltzak
10 min	3) Poltsen apainketa	○ Poltsak ○ Margoak eta errotulkiak ○ Txantiloak
10 min	4) Tailerraren bilketa	
10 min	5) Balorazioa	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Saioa hasi aurretik gelako mahaiak eta aulkiak ilaran jarrita egongo dira. Saioa hastearekin batera Egun horretako arduradunek behar izango diren material eta tresnak mahaira aterako dituzte.



2.- KOADERNOA


Saio honetan aurreko eguneko paper tindatuak erabiliz koaderno bat egingo da.

MATERIALA:

- | | |
|-----------------------|-------------------|
| ○ Artaziak | ○ Tindatutako A4 |
| ○ Barradun kola | papera |
| ○ Erregela | ○ Telazko zinta |
| ○ Zulagailuak | itsaskorra |
| ○ 10 folio erdi | (esparadrapoa) |
| ○ 2 kartoi lodi txiki | ○ Barrualderako |
| | kartulina beltzak |

PROZEDURA:


1. Tindatutako DIN-A4 orria erditik moztu.
2. Kartoi zatiari kola eman eta tindatutako paperaren erdi erdian kokatuz itsatsi.
3. Aire-poltsarik ez sortzeko eskuarekin zapaldu.
4. Lau ertzak ondo tolestu.
5. Markatutako 4 erpinak kontuz ebaki, ondoren ertzei banan banan kola eman eta itsatsi.
6. Beste kartoi zatiari ere modu berdinean itsatsi tindatutako papera.
7. Koadernoaren atzeko partea zein izango den aukeratu, erdia kalkulatu eta arkatzarekin markatu eta zulagailuarekin zulatu.
8. Koadernoaren tapa biak telazko zinta itsaskor batekin elkartuko dira, bi tapen artean 1,5 zm-tako tarte utziz. **Kontuz zuloak estali gabe!**
9. Ertzak egiteko zinta itsaskorraren 6 zm.-tako 4 zati banatu ikasle bakoitzari.
10. Kartulina beltzaz estaliko dira estalkien barrukaldeak.
11. Ikasleei 10 folio erdi banatuko zaizkie eta bakoitza erdi erditik eta banan banan tolestuko dituzte.
12. Folio denak tolestura alde berdinean dutela kontuan izanez, pilatu eta erdia neurtu eta zulagailuarekin zulatu.
13. Koadernoaren atzeko zuloetatik enkuadernatzaileak sartu.
14. Tolestutako orriak enkuadernatzailean sartu eta itxi (ikus eredua).



3.- POLTSEN APAINKETA

Azken egunean etxera eramango dituzte astean zehar tailerrean egindako produktuak, horretarako bakoitzak bere poltsa apainduko du. Poltsak armairuan aurkituko dira, baita txantiloiak, margoak, etab.

Dena garbi eta jasota dagoenean, paperezko poltsak eta etiketen txantiloiak banatzen dira ikasleek apaintzeko.



4.- TAILERRAREN BILKETA

Saioa bukatu ondoren erabilitako tresna guztiak eta egindako gauzak bere lekuan utziko dituzte ikasleek, ardura nagusia saioko arduradunek hartuz.

5.- EGUNEKO BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa betetzen doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.




3.SAIOA

Saio honetan ikasle bakoitzak lehenengo saioan tindatutako paperak erabiliko dira, elkarri lagunduz eta papergintzako manipulazioan ideiak konpartituz karpeta bat egiteko. Honela, lan kooperatiboa baloratu eta norbere emaitzak lortzeko elkarlana ezinbestekoa dela konturaztea nahi da.

	Atalak	Materiala:
10 min	1) Gelaren antolaketa	
80 min	2) Karpeta	○ Artaziak ○ Barradun kola ○ Estalkietarako 2 kartoi sendo handi ○ A3 paper tindatuak ○ Telazko zinta itsaskor zabala (esparadrapoa) ○ Barnealderako kartulina beltzak ○ Errematxadorea ○ Errematxeak ○ Goma
10 min	3) Poltsen prestaketa	
10 min	4) Tailerraren bilketa	
10 min	5) Tailerraren balorazioa	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Saioa hasi aurretik gelako mahaiak eta aulkiak aurreko saioan bezala jarriko ditu irakasleak. Honetaz gain, mahai bat gehiago jarri beharko du errematxadorearekin. Saioa hastearekin batera, arduradunek behar diren material eta tresnak prestatuko dituzte.



2.- KARPETA

Saio honetan aurreko eguneko paper tindatuak erabiliz karpeta bat egingo da.

MATERIALA:

- Artaziak
- Barradun kola
- Estalkietarako bi kartoi sendo handi
- A3 paper tindatuak
- Goma
- Telazko zinta itsaskor zabala (esparadrapoa)
- Barnealderako kartulina beltzak
- Errematxadorea
- Errematxeak

PROZEDURA:

1. Ikasle bakoitzari behar duen materiala banatuko zaio: kola, artaziak, estalkietarako kartoiak eta tindaturiko paperak (egin nahi den karpeta txikia bada, A3 bat emango zaio eta bi neurri handikoa balitz).
2. Lehendabizi kartoiaren alde batean kola ematen da eta horietan tindaturiko A3-ak itsatsiko dira -kartoi biak forratu egingo dira, alegia. Aire poltsarik gera ez dadin lagungarria da eskuekin sakatzen joatea edo erregela erabiltzea.
3. Aurrekoa eginda, zinta itsaskor beltza erabiltzen da estalki biak elkartzeko, zinta honek bizkarraren funtzioa beteko duelarik. Hau dela eta, ebaki behar den zinta itsaskor zatiak kartoiaren bi luzera baino pixka bat gehiagoko neurria izan behar du. Koadernoan bezala, ertzak ere telazko zintaz gogortuko dira. Barrualdeak apaintzeko, zenbait aukera daude:
 - a) Atzekalde bakoitzean kartulina beltz bana itsastea.
 - b) Atzeko kartoiaren -eskumakoan- belarriak edo solapak jartzea: barnealdean jarri aurretik kartulina beltzari solapak ipini, bata behean eta bestea eskumaldean. Lortzen den egitura estalkiaren barrualdean, oso-osorik itsatsiko da.
4. Azkenik karpeta itxiko duen goma edo zinta jarriko zaio. Horretarako, zuloen kokapena txantiloiarekin markatu eta ondoren errematxadorearekin beharrezko zuloak egingo dira dagozkien tokietan. Zuloek ertzetik gutxienez 1 zm-tara egon behar dute. Zuloak eginda, goma jartzea baino ez da falta.

KONTUAN HARTU BEHARREKO MOMENTUAK:

1. Karpetaren tapak lotzeko zinta itsaskor beltza moztu behar denean.

Zinta itsaskor hau oso gogorra denez eta luzera kalkulatu beharra dagoenez, irakasleak moztu eta banatzen du. Lan hau astiro joaten da. Beraz, ikasleak bitartean:

* karpetaren beste detaile batzuk aurreratzen joan daitezke: barruko solapak edo belarriak prestatu, zuloen kokapena markatu, izkinetan esparadrapoa jarri nahi ez duenak barrukaldeko kartulinak itsatsi...

* barrualdeko kartulina apaingarriak itsatsi, zuloen kokapena zehaztu...

2. Errematxeak jarri behar direnean.

Nahiz eta ikasleek errematxadora erabili, horren erabilera egokian arreta jarri beharko da eta laguntza eman beharrezko uneetan. Komenigarria da lan hau beste detaile guztiak amaitutakoan betetzea.

3.- POLTSEN PRESTAKETA

Ikasle bakoitzak, bai gaurko eta baita aurreko egunetako lanak apainduta dauden poltsetan sartu eta lanak gordetzeko kutxan gordeko ditu. Tailerreko irakasleak lanen kutxa hau irakasle gelan utziko du azken egunean etxera eramateko prest gera daitezen.

4.- TAILERRAREN BILKETA

Tailerra bukatu ondoren erabilitako tresna guztiak garbitu eta bere lekuan utziko dira. Horretaz arduratuko dira izendatutako arduradunak.

5.- TAILERRAREN BALORAZIOA

Hiru saioak bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua da. Tailerraren balorazioa erabilgarria izango da lehenengo saioan adostutako asmoak bete diren, adostutakoa aurrera eraman den, zaila egin zaien, gustatu zaien, nola sentitu diren, ... jakiteko, tailerrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta irakasle on interbentzio pedagogikoa egokitzeke.

4~ NON LORTU MATERIALAK

- 1.- KARTOIA: paperdendan "cartón piedra" izenez eta nahi ditugun neurriak zehaztuta.
- 2.- ESPARADRAPO BELTZA: Ferreterietan edo burdindegietan "Tesamol" eskatuta.
- 3.- TINTAK: "Pebeo ceramic" tinta mota, paperdendan erosten dira.
- 4.- Beste guztiak eskola-materialak edota berrerabilitakoak dira.

5~ ERANSKINAK

1. ERANSKINA “Asmoen orria”

ASMOAK



.....



.....



.....



.....

2. ERANSKINA "Arduradunen orria"

ARDURADUNAK

ASTELEHENA					
ASTEARTEA					
ASTEAZKENA					

